

Donostia † Bidasoa-Txingudi † Oarsoaldea † Buruntzaldea † Tolosaldea †
 Goierri † Urola Garaia † Urola Erdia † Urola Kosta † Debagoiena †
 Debarrena † Al día

Noticias de

Gipuzkoa

Dolaretako lanen hasierako festa egingo dute Astigarragan asteburuan

SAGAR ETA SAGARDOAREN KULTURA ZABALDUKO DU HERRIKO KALEETARA SAGAR UZTAJAIK

Ekitaldi nagusiak iganderako iragarri dituzte eta ekoizpen prozesuaren nondik norakoa ezagutzeko aukera izango da



Sagardogile talde bat dolarearekin lanean aurreko Sagar Uzta jai batean. ARGAZKIA: UTZITAKOIA

ARKAITZ ILLARRAMENDI

ASTIGARRAGA. Sagar Uztak zortzigarren edizioa beteko du aurten eta Sagardoetxeak sagarra eta sagardoaren inguruko kultura Astigarragako kaleetan zehar zabalduko du dolaretako lanen hasiera aitzakiatzat hartuz. Horren harira, hainbat ekitaldi izango dira larunbata eta igandean.

Aurtengo edizioan, Sagar Uztak bi ekintzei jarriko die arreta berezia: I. Argazki Rally Digitalari -Sagar Uzta jaiak partaideen ikuspegitik duen xarma sarituko duen lehiaketa- eta Idoia Lizeaga herriko diseinatzailearen Sagar Jauzia, landareekin egindako arteari - Astigarragako kaleak kolorez jantziko dituen paisaia-artelana-.

Horretarako, artistaren irizpideak jarraituz, larunbat arratsaldean tailer irekiak izango dira Joseba Barandiaran plazan.

Aurreko edizioan, toki bakar batean kokatu zen artistaren interbentzioa, baina aurten herri osoan ikusi ahal izango da: Astigarragako sarreretan dauden hiru kupeletan, udaletxean, plazan... Argazki lehiaketari dagokionez, izena igandean eman behar da 9.00etatik 10.00etara udaletxeko arkupetan.

Ekitaldi nagusiak, ordea, igandean Foru plazan izango dira. Horrela, egitaraua 10.00etan hasiko da Pelotari kaletik Foru plazara bidean egingo duten Sagar Biltzea desfilearekin. Bertan, baserriarrak sagarrak bilduko dituzte beren saski eta kizkiekin. Horrez gain, toleara sagardogileekin, garlia, dantzariak, trikitalariak eta txalapartariak izango dira.

11.00etatik 14.00etara, Astigarragako baserrietan bildutako sagarrekin madurazioa, txertoak eta xesto egileen erakustaldia izango da ikusgai. 12.00etan, sagar biltzea kizkiarekin, sagar jotzea pisiokin eta patsaren zampaketa egingo dute. Aldi berean, dastaketa eta salmenta izango da (sagarrak, sagar muztioa, sagardoa, sagar-dultzea eta likoreak).

14.30ean herri bazkaria egingo dute pilotalekuan eta bazkalosterako (17.30 inguruan) sagardogin-tzaren inguruko herri kirolak iragarri dituzte. Egun osoan, gainera, trikitalari, dantzari, abeslari eta txalapartariak ingurua girotuko dute. Sagardoaren museoa ere irekita egongo da igandean egun osoan.

TXAPELKETA HERNANIN Sagardo kontuekin jarraituz, Hernaniko Txantxangorri elkarteak urtero antolatzen duen XXV. Sagardo Lehiaketa izango da bihar, 20.00etatik aurrera, elkartean bertan. Orotara hamabost sagardotegik hartuko dute parte, hots, Hernaniko Alzueta, Iparraguirre, Otsua-Enea, Olaizola, Itsasburu, Rufino eta Zelaia; Astigarragako Gurutzeta, Petritegi, Bereziartua, Herrero, Oyarbide eta Lizeaga; Donostiako Barkaiztegi eta Zubietako Astiazaran. Gainera, erregulartasun sarria emango diote 25 urtetan maila onena erakutsi duen sagardogileari.

Haznos tu página de inicio | Visite también www.noticiasdealava.com | www.noticiasdenavarra.com

© NOTICIAS DE GIPUZKOA

Avda. Tolosa 23 · 20018 Donostia · GIPUZKOA · Tel 943 319 200 · Fax Administración 943 223 900 · Fax Redacción 943 223 902

Enlaces patrocinados: Inmobiliarias | Disfraces | Agencias de publicidad | Tiendas de electrónica | Cirugía estética | Inmobiliarias | Asesorías | Peluquerías | Muebles | Clínicas | Seguridad | Mudanzas | Viajes | Hostales | Taxis | Hogar |